

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko irailaren 11


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • Hiriko karrikak oinezkoentzat dira gaurtik aitzina .

**Silvia Pagola** • «Oso garrantzitsua da jendeak partzuergoa onartzea».



• MIKEL SAIZ

## Artikutza,

# Donostiako nafar lursail bikaina

Donostiako naturgunerik ederrena Nafarroako ipar ekialdean dagoela aipatzen omen dute askotan donostiarrek. Artikutza du izena. Ur hornikuntzarako erosi zuten udalak eta orain babes-mendia bihurtu nahi du. Lursail apart horrek hostozabaleko baso izugarriak ditu, baita lasaitasunaz gozatzen jarraitu nahi duten hamabosten bat bizilagun ere.




Araitz ●

# Artziprestazgoaren eguna ospatuko da igandean

Bosgarren urtez bilduko dira inguruko elizak San Migelgo basilizan

**Duela bost urte hasitako ohiturari jarraiki, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri, Basaburua, Imotz eta Leitza eta Aresoko elizetako ordezkariak jai giroan bilduko dira San Migelgo santutegian.**



Artziprestazgoko festa dela-eta, gurutze lehiaketa sortzen da herrien artean. ● LUI AZANZA

**N**AHIZ ETA LARRAUNGO ARTZIPRESTAZGOA aspalditik aritu lanean, artziprestazgo hori osatzen duten eliz eta herrien arteko lotura sendotu beharra zegoela ikusi zuen duela bost urte, orduan Leitza apiaza zen Plazido Erdozainek. Gainerantzeko apai-zei ideia proposatu zien, ondoren, eta hauek begi onez hartu zuten urtero jai handi batean biltzeko asmoa. Irailaren lehenengo igandea finkatu zen festa horretarako dat gisa. Asmoa berriz, honako hau zen: artziprestazgoa osatzen duten 45 herrietako ahalik eta ordezkari gehienak bildu, eliz bakoitzeko gurutzea prozesioaren buru zutelarik. Herritarren artean, izugarritzko oihartzuna izan zuen iedia honek, artziprestazgo-buru Jesus Jaimerenak dioen bezala, «festarena ohitura berria izan arren, San Migeleko debozioa aspaldikoa baita inguruan».

Gurutze bilkura honetan, hala ere, ez dira denak izango. Hogei-tamar bat izango dira, seguruenik, bilduko direnak. Batzuk ezinezkoa dute, beste batzuk, aldiz, ez dute nahi. Astitzaren ordezkari-za ere izango omen da, esaterako, igandeko jai horretan, baina bere gurutzea ez omen dute eramango. Izan ere, garai batean, izugarritzko gurutze baliotsua ze-

goen Astitzen, zilarrezkoa. Baina Aita Santua Xabierren zetorrela eta gurutzea bertara eramateko agindua iritsi omen zitzaion Iruñetik. Gurutze hori, ordeza, ez zen gehiago Astitzera bueltatu. Oraingoa, hojalatakoa da, eta ez lotsatzearen ez dute eramango. Ez baita ez txantxetako, gurutzeen arteko lehia. Jai hau antolatzen den lehenengo urtean, adibidez, Le-

kunberriarrek ere izan zuten istilurik bere gurutzea zela eta. Bi gurutze dituzte elizan, bata oso baliotsua, eta bestea berriz, arruntagoa. Urte hartan, apaizak, baliotsua eramanez gero bidean estropeatu zitekeelakoan, bestea eraman zuen. Bat baino gehiago haserretu ere egin omen zen, lekunberriarrek ezin omen zutelako gurutzerik kaxkarrena eduki.

Festaren ideia sortu zenean, urtero errepikatze konprometuzua hartu bazen ere, ia ez zen posible izan. Santutegia berritzen ari ziren egun horietan, eta ez ziren baldintza egokiak horrelako ospakizunerako. Baina, etenaldi horren ondoren, igandean berriz jarriko dira denak San Migel bidean. Beste urteetan bertan izan bada ere, aurten ez omne da etorriko Sebastian artzapezpikua, festaren eguna astebetetz atzeratu zen, hasieran, artzapezpikuaren agenda errazteko asmoz, baina azkenean, euskal zonaldeko bikario orokorra etorriko da haren orde.

Egitariari dagokionez, hamaika eta erdi tarako iragarri dute prozesioaren hasiera. Hamabietan, letaniak izango dira, eta ordu erdi beranduago, berriz, aitortza sakramentua. Ordubatean hasiko da meza nagusia, eta ondoren, arimari kasu egin eta gero, gorputzari kasu egingo zaio. Bazkaria, ordubitan izango da. Inguruko zelaian bazkalduko dute batzuk, baloitzak eramandako puskarakin. Beste batzuk, aldiz, ondoko ostatuan asetuko dira. Festa 16:30etan amaituko da, esker otoitzarekin.

→ Urko Aristi

## Bera ● Dakota antzeslana kultur etxean

ABUZTUAN DONOSTIAN HAINBERTZE arrakastaz estreinatu zen Dakota antzeslana bihar iritsiko da Berara. Arratseko 10etatik aitzinera, kultur etxean, telebistako hainbat telesailetan agertu izan diren Joseba Apaolaza, Joxe Ramon Sorroiz, Ramon Agirre eta Aitzpea Goenaga aktoreak dira antzeslanean dihardutenak. Tanttaka taldearen lan berri hau Donostiako udako antzerki denboraldian euskaraz eskaini zen bakarra izan zen. Eskaintako bi emanaldietan antzokia leporaino betetzea lortu zuten, eta ikusle, zein kazetari-rien kritika ezin hobek lortu zituzten.

Tanttaka taldeak, aurretik El florido pensil hain ezaguna egin zuena, Kataluniako 3XTR3S taldearekin elkarlanean prestatu du antzeslan hau, egilea Jordi Galcera kataluniarra baita.


Protagonista Joseba Apaolaza da. Hipolito San Martzialen paperean, dituen ametsek benetako gertaerak iragartzen dituztela oihartu eta gero, eromen prozesuan sartzen den gizona. Bere paranoiak Aitzpea Goenagak eta Ramon Agirre-rik jasan behar dituzte.

Ordu bete eta hiru ordu laurdeneko iraupena du antzeslanak, eta sarrera 1.200 pezetan egonen da salgai bertan, eta alde aurretik 1.000 pezetan Errekalde ostatuan. Antzeslana ekartzeaz Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Euskara Batzordea izan dira.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



## Glaziarretako arrailak gogoan

**E**z dakit irakurleak beldur izango ote dien amildegiei. Nik, behintzat, bai. Beldurtu egiten naute, biziki gainera, eta baita erakarri ere. Baina ez naiz hemen amildegiaz arituko askotan bizitzari buruz mintzatzerakoan erabili ohi den zentzu metaforikoaz: zuen eta gure artean bada amildegia bat pasa ezinezkoa, eta ez saiatu bi ertzak zubiz elkartzekin lotzen, alperrikako lana izateaz gain gutariko inor ere pasako ez delako hortik, esate batera. Esan ere esaten da -bide horretatik joanda- Munduko Iparraren eta Hegoaren arteko amildegia geroz eta handiagoa dela, geroz eta sakonagoa, eta ez dagoela zer egiterik, amildegia areagotzea besterik, finean, bi mundu arras ezberdin bilakatzeraino. Beste pare bat oraindik: ai, biok eginda-ko amildegia gaizto hura, orain lur gozo bihurtuta,

edota, bion artean dagoen amildegia gaindiezina denez, bego bakoitza bere bazterrean, hillik antzean, bakardadearen mugaren preso. Edo, besterik gabe-hau ere nahiko erabilgarria-, amildegia ertzetik erne ez dabilena erori egingo da goiz edo berandu. Errusia, adibidez, «erorketa librean kausitzen da» aipatu berri du Viktor Txernomirdinek, Errusiako Amildegietarako lehen misnistro posturako hautagaiak, eta zinez, amildegira doala, Jeltsin mafiosoaren maletin nuklearrak lagunduta. Eta beste bat gehiago: zein amildegitar eroria da Urralburu, behin Jauregiko ponpaz jabetu eta gero, ala itxura besterik ez du egiten morroi horrek? Amaitzen joateko: Irlanda eta Euskal Herriaren arteko diferentziak abismalak direnez gero, ez dago ondorioztatzerik... Eta abar.

Baina ez, hemen adierazi nahi dudanak ez du ze-

rikusirik metaforen munduarekin, egiazko malkorrekin baizik. Beraz, bada, nire begirune eta mirespena amildegietako paretetan barna beldurra gainditu eta abil moldatzen den jendeari, eskalatzaileei... Eta ezin haiek bezala horma bertikalari hatsa somatu! Halaz ere, dena ez da etsipena, ordezkari badelako, eta eskalatzeko behar den adorean falta dudana, kasu, ibiltzekoan badaukat soberan. Horratio, hola gabiltzanok malkor sakonez inguratutako kasiko galantak maiz behar izaten ditugu zapaldu, eta oin azpian zorabioa sentitu. Bada garaia korolariora egitekoa: bizitzan ibiltzen bagoazela amildegietako heegal, harri eta fisurari estu helduta, hatzez eta behatzez; begiak, denik zorrotzenak ere, errail sakonetara amiltzen diren artean. Erorketa libreko lerro hauek hondoa jo dute.





ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Sinagogako Batzarre Nagusia.

Dolu egunak Euskal Gethoan. Nafarroan D ereduaren egindako matrikulazioak nabarmen egin omen du behera. Zer edo zer egin behar nuela-eta, aurretik Euskadiko Kutxara joan naiz dirua ateratzera eta gero Eroskin erositako bi kandlekin Sinagogara hurbildu naiz. Nirekin batera alde zaharreko kale guzti guztietatik alkandorak eta soinekoak urratzen zituzten jendakiak agertzen ziren eta, zorrotzenek, buru gainetik errautsa botatzen zuten Xiberoako azpi-azpi-euskalki erdi atzendu batean ozenki otoitz egiten zuten bitartean. Gau itxia izan arren, zerua gure bihotzak baino argiagoa zegoen. Gaueko zeru honek behintzat baditu izar bakan batzuk! Ai Jerusalem! Ai gure Txillardegia eta Txepetx profetak! Non zaudete gehien behar zaituztegunean? Etorkizunaren irudien antzera, gaur, orain, dena iruditzen zaigu itxia eta hitza (Hango neskatila hura esate baterako. Beti auzoko neska ederrena iruditu zaidana. Ez al dut ikusten, bada, gaur lodi-egia? Beno, klaro, soineko urratuarekin ikusten dudana lehendabiziko aldia da! Harira, xabier, harira). Batzarrari hasiera eman diogu. Zenbatetan jeitsi da? «Punto bat eta piko», dio batek. «Berriz esango dut», esaten du Iturramako Rabinoak: «Haur gehiago egin behar ditugula euskaldunok!». Iskanbila emakumeen bankuetatik. Txistu fin batzuk ere bai. Txantreako Rabinoak, aldiz, kalkuladora altxatuz, «zenbakietan 30 haur besterik ez dira», aipatzen du. «A, bueno, 30» errepikatzen da bankuetan marmarka. «Barkatu, buruz ari naiz bainan 54 dira», esaten du NUPeko fisika irakasleak, eta segituan kalkuladora batek kolpatzen dio buruan. Txantreako Rabinoa kanporatzen dute, «ni ez naiz izan» dioten bitartean. «Ipar Irlandan eta Palestinan jaiotze tasarekin irabaziko dute», dio, temati, Iturramako Rabino guztiz errautsatutakoak. Bapatean ixildu egiten da. Norbait ate joka ari da. Jotzen ari da eta presarekin dirudi. Nor izango da? «Lasai zaitetze, nik idekiko dut», esan digu ahots sakonez Errotxapeako Rabinoak. Ate nagusira joan da gero, eta barrurantz tiratu du. «Ni ez naiz izan, utzi pasatzen», esan du Txantreako Rabinoak, sartzen zen bitartean.

# Lizarra • Alde Zaharra soilik oinezkoentzat

Kotxeek txartel batekin baino ezin izango dute sartu

**Gaurtik aintzina Lizarrako Alde Zaharrak itxura berri bat agertuko du; izan ere, kotxeek ezin izanen dute gune horretan sartu, txartel berezi batekin ez bada.**



Gaurtik aintzina, kotxeek ezin dute Nabarrerria bezalako karriketatik pasa txartel berezi batekin ez bada.

• KRISTINA BERASAIN

**P**EATONALIZAZIO ADIMENDUA DEITurarekin izendatu dute gaurtik aintzina martxan jarriko den neurria. Lizarrako Alde Zaharrera sartzeko, autoarekin jakina, txartel berezi batzu beharrezko izanen dira. Horrela, oinezkoek lasai asko ibiliko dira hemendik harat, kotxeen beldur izan gabe.

Neurri hau hiriko hiru eremutan jarriko da martxan, hain zuzen ere, Foruen plazan, Santiago enparantzan eta Alde Zaharra bezala ezaguna den zonaldean, hots, Navarrerria, Estrella, Carpinteria, El Puy, Chapitel, Cuchilleria, Zapateria, Ruiz de Alda, La Imprenta eta Sancho Ramirez kaleak eta San Miguel enparantzan. Lehenengo eremuan zamaketa lanak egin ahal izanen dira goizean; bertze bi eremutan, aldiz, egun osoan zehar sartu ahal izanen da, beti ere txartel berezi batekin. Horrela, bertako biztanleek kotxearekin garajeraino joan ahal izanen dute. Dena den, inolako kasutan ezin izanen da autoa kalean utzi.

Alpatu eremutan sartu ahal

izateko, bertako biztanleek txartel berezi bat jaso dute aste osoan Udaletxean 1.000 pezetaren truke. Horrela, gaurtik aintzina zonalde horietara sartu ahal izateko aparkalekuetan egon ohi diren krontola pasa beharko dute, txartela sartu eta langa igo egiten da, alegia.

Lizarrako Udalak udara hastear zegoenean onartu zuen neurri hau. Lehenago, apirilean, hain zuzen ere, hiriko alkateak, Jose Luis Castejonek, aurreproiektuaren berri eman zien hiriko bortz

udal taldeei (PSOE; UPN; CUE; EA eta HB). Ordudanik jakin zen neurri hau aurrera eramango zuen enpresa Dornier S.A izanen zela, Zaragozako jatorriz.

Neurri hau hartzera bultzatu duten arrazoiak anitzak dira alkatearen hitzetan. Batetik, auto istripuen arriskua gutxitzea; bertetik, aparkatzeko guneak zaintzea; hirugarrenik, ondare historikoa babestea, eta, azkenik, biztanleen lasaitasuna bermatzea.

→ Kristina Berasain

## Izaba

Udal Musika Bandaren antzinako tresnak Museoan

IZABAKO UDAL MUSIKA BANDAko musikariek hainbat eta hainbat urtez jo zituzten musika tresna zaharrak herriko Museo Etnografikoan dira ikusgai joan den uztailaz geroztik, eta uda amaitu arte. Erakusketaren bidez, eta sortu zenetik 70 urte igaro direla aitzakitzat hartuz, Udal Musika Bandako kideak omendu nahi izan ditu Izabako Udalak.

Musika tresnak 1928. urtean Iruñeko Luna Etxean erosi zituzten. Musika Banda 1947. urtean desagertu zenean, Udalak musika tresnak gorde zituen; ondoren, Jose Maria Avizandak hartu zuen bere gain tresna haiek gordetzea eta zaintzeko ardura. Avizandak, Erronkariko bere etxeko atarian erakutsi ditu musika tresnok, Izabako Museora eraman arte. Erakusketan mota askotako tresnak ikus daitezke: danborra, baxuak, kontra-baxuak, bonbardinoak, bonboa, txindatak, ... eta haiekin batera, partitura liburuak eta beste musika tresna zaharragoak.

Izabako Udal Musika Banda Antonio Avizanda Burgorrik sortu zuen 1928. urtean. Avizandak abian jarritako egitasmoa 1936. urtean bertan behera gelditu zen Espainiako gerra zibilarengatik, baina 1942an, Musika Banda berriro martxan jarri zuen izabarrak. Bost urte geroago behin bertako desagertu zen Izabako Udal Musika Banda.

→ Fernando Hualde

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Bizkaitar bat Bakaikun

**Guaixe-k**, Sakanako hilabetekariak, Pantxike Kontreras bizkaitarrak Bakaiku herriari buruz idatzi liburuaren berri ematen du azken zenbakian. Beste gai batzuen artean, burdingintzak herriaren bizitzan hainbat urtez izan duen garrantzia aztertu du Kontrerasak, Bakaikuko Urrestarazu ahizpekin batera idatzi lanean: «XIX. mendean lortu zuen burdingintzak arrakastarik handiena uraren indarra erabiliz. Errekak eta ibaiek herrietara hurbiltzeko eragin handia izan zuen garapen horretan. Aspaldian bur-

dingintzan erabiltzen zuten lantegiaren tximinia da gelditzen zaigun aztarnetako bat».

Pantxike Kontreras antropologia ikasten ari da egun Deustun; Bakaikuko barnetegira joan zen lehenengo aldian bururatu zitzaion liburua idaztea. **Guaixe**-koek diotenez: «Hemen herriko jendea ezagutzeko parada izan zuen. Harreman horren ondorioz liburua egiteko gogo sortu zitzaion, eta besterik gabe, jardura horretan sei urtez aritu da».

«Bere kezarik handiena zera da: herriko lagunek laguntza txikia eskaini diotela. Hala ere, lanak eta sufrimenduak gaintu ondoren, liburua argitaratu du bere poltsikotik ordainduta». 50 ale argitaratu ditu, eta baloizta 7.000 pezetatan dago salgai. «Nahiko garestia gertatu zait liburua nik neuk kaleratzea, baina merezi izan du. Horretarako Bilboko kazetari batzuen laguntza izan dut», aipatzen du Pantxike Kontrerasak **Guaixe**-n. **Bakaiku** liburua Altsasuko liburutegian dago jada.



# Artikutza, Donostiako lursaila Nafarroan

Bizilagunek ezinbestekotzat jotzen dute Artikutza babes-mendi bihurtzeko udalaren nahia, lursailaren lasaitasuna eta baliabideak mantentzeko bederen.

**Donostiako naturgunerik ederrena Nafarroako ipar ekialdean dagoela aipatzen omen dute askotan donostiarrek. Artikutza du izena. Ur hornikuntzarako erosi zuen udalak eta orain babes-mendia bihurtu nahi du. Lursail apart horrek hostozabaleko baso izugarriak ditu, baita lasaitasunaz gozaten jarraitu nahi duten hamabosten bat bizilagun ere.**

**B**ERDEAK IZENA GALTZEN duen Nafarroako ipar ekialdean dago lursail bikain hau. Artikutza, Goizuetako auzoa da. Artikutza, Nafarroako ibaia da, Goizuetako inguruan jaio eta Artikutzatik pasa ondoren Elamarekin bat egiten duena Añarbe ibaia sortzeko. Eta Artikutza urtegia da, Eno-bieta ibaiaren urak biltzen dituen. 1962an eraiki zen eta hogeita bat hektareako azalera du.

Artikutzako lursaila, urtegia barne, Donostiako udalarena da. Goizuetako udal barrutiaren barnean badago ere, hau da, Nafarroan. 1919. urtean eskuratu zuen Donostiak lursaila bere ur baliabideak aprobetxatzearren. Lehenago Orreagako kolegiatakoa izanikoa zen, lehenbizi, eta zenbait jabe partikularrena, ondoren. Egun, udalaren politika kontserbazionistari esker, baso zabalak ditu Artikutzak, pagoak, haritzak, haritz gorriak eta pinuak nagusi direla. Hostozabalen baseoz osaturiko 3.700 hektarea hauek urtean zehar itxirrik daude jendearendako eta baimena eskatu behar da Donostiako udalaren bertsio sartzeko. Egunean hirurogei baimen ematen dituzte bakarrik. Hala ere, urtean behin, San Agustín egunarekin, abuztuaren 28an, Artikutzako atak irekitzen dituzte edonork sar dadin.



Maria Indakoetxea


**«Behorrek, betizuak eta ardiak asko sartzen dira. Aurreko igandean baratzeraino sartu ziren zenbait betizu. Horregatik egin dute eskaera Donostiako udalekoek, baina Nafarroako Gobernuak ez omen die erantzunik eman. Ziur asko ez dira ardiak sartuko eskaera atentitzen badute»**

Milatik gora lagun bildu ziren Artikutzan azkeneko ate irekieran. Lesaka, Aranatz, Goizuetako Oartzunetik joanak ziren gehienak. Eguneko meza 82 urteko Imanol Irigarai eman zuen San Agustineko ermitan, igandero legez. Normalean laupabost eliztarrendako izaten da meza, baina egun horretanxe dozenaka lagun bildu ziren. Donostiako Artzai Oeneko apezta eta Elizondokoaren laguntza izan zuen. Meza entzun eta gero, zenbait pilota partidu jokatu ziren Artikutzako frontoi tipian. Dantzaldia eta herri kirolen erakustaldia izan zen ere. Guzi horrek 800.000 mila pezetako aurrekontua suposatu zuen Donostiako udalarendako (32.000 libera).

### Lasaitasuna nagusi

Baina, erran bezala, egun bateko kontua da San Agustinekoa. Gainerako 364 egunetan lasaitasuna da nagusi Artikutzan. Egun, zortzi etxe daude okupaturik eta, denetara, hamabosten bat lagun bizi dira han erregularki. Horiexen artean, lursailko administratzailea, bi guarda eta mantenimendurako bost langile bizi dira. Besteak lanbide horiek izaniko zenbait jubilatu dira. Aparteko bizilekua da Artikutza natura eta lasaitasuna gustukoa izanez gero. Ez dezala bisitariak besterik bila Artikutzan.

Artikutzara heltzeko Oartzunetik abiatzen den hogeita kilometroko errepidea hartu behar da. Makina bat bihurgune igaro eta gero, Bianditzeko mendatea igo eta jeitsi ondoren, Artikutzako sarrerara ailegatzen da. Hantxe, baimena erakutsi behar zaio atezainari, 55 bat urteko amonari, egurrezko hesia ireki dezan. Hau behin igarota, ezin da kotxea gelditu Artikutzako herriskara heltzeko, halaxe agintzen baitute bidean jarririkoa karteak. Jende gutti bizi izanagatik, etxe handi xamarrak dira Artikutzakoak. Izan ere, lehen jende gehiago bizi zen 64 urteko Maria Santos Inda-



koetxea Salaberriak adierazten duenez: «Lehen jende gehiago geunden. Hogeita lau langile, bost guarda eta kaboa izatera ailegatu gara hemen. Denak familiekin zeuden, hemengo etxe guztiak okupaturik. Orain dela berrogei bat urte 23 edo 24 haur zeuden Artikutzako eskolan. Bertakoak eta inguruko haurrak ziren, sei eta hamalau urte bitartekoak. Orain sei bikote gaude eta alarguna». Maria Santosen bikotea, senarra alegia, Pascual Gamio Gamio da, 75 urtekoa. «Nire gizona hemen jaio zen», azaldu du Indakoetxea andreak. «Ni Goizuetako baserri batekoa naiz eta orain dela 44

Artikutza ermitak laupabost eliztarren dituen, San Agustinean bezik. ● MIKEL SAIZ

urte eorri nintzen. Bera hemendik lau kilometrotara dagoen etxe batean jaio zen, baina bi urte zituela etorri zen etxe honetara bizitzera. Seme gazteenarekin bizi gara. Beste lauak joanak dira, baina oso maiz etortzen zaizkigu bisitan, asteburuetan, jailetan eta oporretan». Artikutzako bizilagun zaharrena Concepcion Fagoaga Koloma da, 77 urtekoa eta alarguna. Gazteenak, Iker Fagoaga Fernandez haurrak, bi urte ditu. Bere gurasoak, Juan Carlos eta Elsa, Artikutzan izanen dira bizitzen Iker eskolan hasten den arte. Orduan Oartzunera joanen dira, han beste etxe bat baitute, Artikutzako bizilagun

gehien antzera. «Artikutzakoak goizuetarrak gara», dio Indakoetxeak. «Hala ere, gu Errenterian enpadronatuta gaude Iruñea oso urrutitik delako gestioak egiteko. Beste batzuk Oartzunen daude enpadronatuta, eta bakan batzuk Goizuetan».

Ikerrek, bere amaren laguntzaz, erraten duenez, oso gustora dago Artikutzan bere adineko haurrik ez badu ere. Gamio eta Indakoetxea senar-emazteak gustora daude ere. «Nire gizonak ez du hemendikan kanpora bizitzera joan nahi eta nik ere ez. Blok ongi gauden artean Artikutzan izango gara», dio emazteak.

## Artikutza babes-mendi bihurtzeko afera

Donostiako Udaltzako babes-mendi bihurtu nahi du Artikutza eta halaxe jakinarazi zion Nafarroako Gobernuari duela hamazortzi hilabete, baina oraindik ez dute erantzunik jaso


Ramon Uribe, Donostiako Udaleko udal zerbitzuaren zinegotzia, etsiturik dago. Orain dela urte eta erdi bidali zion eskaera bat Nafarroako Gobernuari Artikutza babes-mendi bihurtzeko. Oraindik ez du erantzunik jaso. Hasierakoaren ostean beste hiru eskutitz bidali die, baina erantzunik ez.

«Ur erreterbera zena parkea bilakatu da denboraren poderioz, baina lorturikoa mantentzeko plangintza bat behar da, eta hori lortzeko babes-mendi izendatu behar dugu Artikutza», azaldu du Ramon Uribe. «Baina guk ez dugu baso-teknikaririk, bai ordea Nafarroako Gobernuak». Naturgune bat babesteko zenbait izendapen mota dago, Uriberen aburuz, babes-mendi figura legala da Artikutzari hobe biekien egokitzen zaiona. «Beste figura guztiekien jabeak jabeago gaitzen du. Honekin ez, kudeaketak gurea izaten jarraituko luke. Plangintza bat ezarriko genuke basoa mantentzeko, eta horretarako behar dugu Nafarroako Go-

bernuaren diru laguntza eta laguntza teknikoak, eta erabiltzaile turistikoak emateko prest geundeko, agroturismoa edo beste giatuak kasu. Baina beti ere, guk izanen genuke kudeaketa. Izan ere, ondoko lursailetan gertaturikoa ikusita, zuhaztzen azalera arraztikitu baita, ez gara fidatzen. Laguntza behar dutela onartu arren, Uribe ez du uste Artikutzan baliabide gehiago paratu behar dituztenik. «Bestelakoak dira artikutzarren usteak ordea. Lursailen langile dabilta Juan Mari Aginaga eta Manuel Maria Aginaga. Euren ustez gutti dira Artikutzan dauden mantedurako langileak. «Baliabideak ere eskasak dira», dio Aginagak. Hemen ditugun bi garabi Donostian zeuden zatien artean jartzen ez dela ere».

Artikutzan guardia gehiago behar direla uste dute ere. Pascual Gamio berrogei urtez izan zen guarda beste lauekin batera. Orain bi daude. «Gu bost guarda izaten ginen men- tzik ibiltzen ginenak eta, nola egunez edo gauez ibiltzen ginen, hemen arrantzeak gutxi sartzen zen. Sartzen ziren

bai, baina beldur handiarekin. Eta orduan izaten ziren amuarrainak. Eta basurdearekin berdin. Hemen ibiltzen ziren ehiztariak, beldurrarekin sartzen ziren beti, sartzekotan. Hamaika aldiz harrapatu ditugu. Orain ez». Honek lursailaren bukaera ekarriko du Gamioaren ustez. «Debekatuta egon arren arrantzaleak eta ehiztariak sartzen dira. Azeriatan ongi egiten ari direla edo, aitzaki horrekin etortzen dira eta basurdetan aritzen dira. Ehiztariak eta arrantzaleak uzten badituzte libre, finka hau galduko da. Denuntziak jarri behar dira, handiak gainera. Orduan bai izutuko zen jendea eta lehen bezala kanpoan gelditu, nola arrantzaleak nola ehiztariak». Baina Uribe azaltzen duenez, Donostiako udalak, Nafarroan jabe partikularra den heinean, ezin du isunik jarri. Babes-mendi izendapena lortuz gero, orduan bai egonen litzateke isileko ehiztari eta arrantzaleak zigortzeko modurik. Artikutzako erreketan jada ez dago amuarrainik eta basurde gutti dago ere. Donostiako udalaren eskaerari kasu egitea naturgune bikain honen arazoak konpontzeko modua izanen litzateke agian. Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain egon beharko du Artikutzak.



Donostia urez hornitzeko erosi zuen udalak Artikutza 1919an baina, hiria asko handitu zenez, ura bertako eta inguruko baserriendako da orain. ● MIKEL SAIZ

Artikutzan ez dago aisialdirako gauza handirik basoaren handitasuna ez bada. «Egun normal bat errez pasatzen dugu hemen. Nik baratzean eta nire gizona pasiatzen», azaltzen du Indakoetxea andreak. Taberna bat badago Artikutzan, baina ez da jende asko joaten. «Nire gizona ez da tabernan sartzen. Oso gutxi bizi gara eta hiru edo lau ibiltzen dira hor. Lehenago bai egoten zen jendea». Artikutzan bada ermitarik, San Agustinekoa. Igandetan soilik egiten dute meza «apaiza oso zahartuta dagoelako. Hortxe hortxe dabil gixajoa, baina ez du utzi nahi». Paseoak eman eta bizilagunekin hitzegitea da denbora pasatzeko artikutzarrek egiten dutena.

Bisitan etortzen zaizkienekin ere hitzegiten dute. «Hemendik pasatzen direnekin oso ongi moldatzen gara», erran du Indakoetxeak. «Gauzak jakin nahi dituzte, baina ezer gutxi dago hemen. Kanpotik etortzen den jendea «zein polita eta zein polita» esaten aritzen da. Guk polita ez dugu ezer ikusten baina gustora bizi gara hemen, ume txikiak zaindu behar genituenean baino hobeto». Bere senarrak ordea ikusten du edertasunik Artikutzan. «Oso gustora gaude hemen. Neretzako, hau bezalako parajerik ez da. Atzo izan nintzen Donostian, okulistarenean, eta bazkaltzeko etorri nintzen. Hemen paseoa mendian eginaz bueltaka ederki bizi naiz. Garbia da, lasaia eta ez dago ezerren zaratarik». Badago ordea lasaitasun hau apurtzen duenik: ardiak, betizuak eta behorrek alde batetik, eta ehiztariak eta arrantzaleak bestetik. «Behorrek, betizuak eta ardiak asko sartzen dira. Aurreko igandean baratzeraino sartu ziren zenbait betizu. Horregatik egin dute eskaera Donostiako udalekoek, baina Nafarroako Gobernuak ez omen die erantzunik eman. Ziur asko ez dira ardiak sartuko eskaera atentitzen badute». Dena dela, hauxe da artikutzarren buruhauste ia bakarra. Bestea eguneko paseotxoan nondik eginen duten erabakitzeko litzateke, eta ez da ez baztertzeko moduko buruhauste.

→ Aster Azpilikueta



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Jose Elizondo antzerkigile tolosarra

Idazle emankorra izan zen Jose Elizondo Lopez tolosarra; jaio zeneko 133. urteurrena aitzaki hartuta, hona hemen bere lanen gaineko aipuak eta pasarte zenbait.



**H**ELDU DEN ASTEAZKENEAN, HILak 14an, Jose Elizondo Lopez jaio zeneko 133. urteurrena ospatzeko aukera izanen dugu, areago ordea tolosarrekin, bada, bertan jaio eta baita bertan ere 1943.eko apirilaren 18an zendu egin baizitzaigu; ez dakiguna, berriz, zera da, ei a amaren aldetiko sendia Lopez-Mendizabal inprimatzaile-liburugilerenaren berbera ote zententz, baina halaxe izan balitz, ezin aproposago otu litzaigukeen. Nahikoa idatzi zuen garaiko paper aldizkari gutxiz gehienetan, baina antzerkia izan zen kirioak bereziki kilikatu zizkion idatz generoa.

Bere burua 1907. ean eman zuen ezagutzera estrainekoz, Elgoibarren buruturiko euskal festetan, literatur lehiaketan irabazle suertatu zen *Idartzako jauna* akto bakarrek antzezlanarekin, eta handik bi urtetara, akto bakarrek ere *Ametz guzuek* aurkeztu zuen Hernaniko ospakizunetan. Hirugarren lan ezaguna 1911. ean Bilboko gazteriak antolatutako sariketan irabazle gertatu *Txomin Arraio* komeria izan zen; lan honek bizkaierazko aldaera ere bazuen, Ebaristo Bustintzak egina, eta *Alkate ona* izenburuarekin.

1813.eko Donostiako sarraskiaren mendeurrena zela eta antolatutako ekitaldien barruan *Atsegea* drama sariztatu zioten. Aldiz, 1915. ean, Molièreraren *L'Avare* antzerki famatutik *Dollorria* moldakizuna egin zuen; drama hiru ekitaldidun honek Donostiako saria jaso zuen, eta Toribio Altzagak oholtza gaineko moldaketa egina, 8 aldiz antzeztu zuten osotara. Donostian, Tolosan, Bergaran, Irunen eta Bilbon. *Antzerti* aldizkarian argitara emaniko *Atzetorkia*, berriz, ekitaldi bakarrek jolas-txolartea lau aldiz antzeztu zen, Donostian eta Bergaran, 1916. ez geroztik, orobat *Ill naita ill ezin* ekitaldi bakarrek irri-jostailua bezala. Azkenez, eta Donostian sariturik ere, *Omena* hiru ekitaldiko komeria

estreinatu zuen 1917. ean: «-Gezurra dirudi. -Ez da baña; jakintsu guziak orretan daude; atzetorkia gauz miragarria da. -Nola izan diteke baña? -Adi zazu: makatza txertatzen degu. -Txertatzen degu. -Gero zer dator? -Txertatzen zayon igaliaren edo frutuaren antzerako emakia. -Atzetorkia ori da. Gure eskola-maixuak dionez, gizonaren txertu jatorra plasma da. -Kataplasma esan naiko dezu? -Ez kata, ta ez katu, plasma uts-utsa baizik. Plasman txertatzen gera, ta txertua nolako dan, frutua, alako izaten da. Aita ta ama nolako, seme ta alabak, alako. -Ori, len ere bageñiakian. Aita arra, semea ere arra; ta alaba, ama bezela, emea!».

Antzerkiaren ostean olerkia eta narrazio laburra izan zen Elizondoren genero hautak. Poeta gisa *Euskal Erria* aldizkarian egin lana Onaindiaren bilduman irakur daiteke, eta hitz lauz eginikoa, aldiz, bai *Euskal Esnalea*-n (1911-1929) edota bai *Vida vasca*-n ere (1911-1917). Añamendikoe euskal literaturari eskeini bost aleko entziklopedia mardul zaharkituxe baina oraingoz ezin utzizkoan, hirugarrenean hain zuzen ere, *Euskal Esnalea*-n 1926. ean agertu arrantzari buruzko pasarte irakurgai dago: «Arrastarako sare zabilten ontzi edo bapore aundiaren arrantzua-lana era bitarakoa da; batzuk bakarka, ta bestetzuk biñaka edo parejaturik ibiltzen dira. Arraste arrantzua-lan onetan, arrastarako bear zan sarea zabaldu, erabilli ta jazotzeko ontzi bakarraren ala aski etzalako, bapore biren partxo edo alkarkera bear izaten zan. Oek atxitzen zituzten arrayak, lega-

tza, barbariña (salmonete), lenguadu edo xabalua, sapua, olarra, gorrixkoa, perloya, zigala, katu, pinpiño, kolayo, ta beste arrai mota anitz izaten ziran; baña oek guzien artean geyentzukoa legatza izaten zan. Portura eltzen ziranean, arraya kai-gañera edo mollera ateratzeko kakoz edo eskuz beartzen ziran, ta aterata gero, zaldizko gurditan artuta saltokira (bentara) eramaten zuten».

Lantzean behin ere, sariketara aurkeztu lanak solte karrikatu ziren, 1911. ean Segurako euskal jaietan, *Euskalerraren Alde*-koek deitu batzaldian, lehenbiziko saria eskuratu zuen *Endo irakurkizuna* lana kasurako. Donostiako Martin, Mena eta besteren etxean moldaturik atera zena: «Gau erdi aldía zan. Neguko aro ekaizgarriak, mendi ta ibarrak estalita zeuzkan, ta basobideak zingiraturik. Etzan aditzen aizearen chistu mintzua ta gabontzaren noizean beingo ulua baizik, baserriko chakuraren zaunkadak chandari zituztela. Orri berdiak erantzita elur zuriyetz zuzaitzak jantzi ziran, sortitzaren gaizgena ziruditela. Bildotzak amari bezela, maitasun samurrakin illargiyak lurrari zerrayoan orei lañukorrek aldiyan bein bitartetzen zitzaiztelarik, gaubaren bakaldunen musu zillartsua ezkutatuaz. Lo zeuden baserriarrak eguneango nekea atsedentzen; basatiak aitz zuloetan atziketakin amestetan ta chorichuak dardaraz kabiyetan. Isiltasunaren errayak estanda eginta turmoi izugarriak bere ots dranbatsuakin zerutzuneak igitu zituan ta chimit-argi sutsuak illunpe urruña gorritu zuan. Chimistargitik sortu balitz bezela, gizakume edo ekantz galbilla ote zan antzik eman ezin zikiola, bide zidior batetik zijoan gizon bat agertu zan».



etorri ahalean

Patziku Perurena

## Zentzuak bakaziotan

**B**ANOA BARANDA IZENEKO herriskatik Renedo aldera, eta kamio bazterrean zikloturisten errosarioa, peste egunak penitentzia eginez santifikatzen. Kristo gurutziltzatuak dirudite, beren gorputz agoniakoak antiaju beltz eta galtzamotoz extutan konprimiturik, odola izerditan botzeko punturaino lastimatuak. Ze pena ematen duen gizon modernoak!

Ebro bazterrean urbildu naiz Renedon. Hara! ezkildorrea urpetik non ageri den. Aditua nuen lehendik, urak azpian hartu zuela herria. Nere bihotzaren poza! Herri bat urpetik azaltzen! Zeinen ederra inozentzia, eta nola itzultzen den bihotzera denborarekin! Ekologistak ordea, ikusi orduko genozidiokan nituzke. Egungo jende tasatzaileak, aurrerakoa eta okerreana, ezin du eraman inozentzi muttur bat ere inon.

Baezpare, Retortillo aldera jodut, erromanikoa ikustera. Bai inozentea eta ederra harria! Seguru eliza altza zuten harginek, erromanikoak izateari batere inportantziarik eman gabe erabili zituztela harriak eskuz esku. Baina, etorri da oraingo gizona, dotrina ororen sinesle eta guzien ignoratzaile, eta ez daki zer egin: edo erromanikoa ukiezintzat sakralizatu edo harriz harri desegin eliza, xehero tasatzeko; *mea culpa*-rik ez dakiola, ordea, inon azaldu.

Ze lastima! Ikusten duen guzia adoratu edo desegin behar larri honek, erakusten du ederki, oraingo jendajeak bere buruaz duen errudun kontzeptu extu eta inozentziaren zipitzik gabekoa. Hauak ez dakite, eta ez dute pentsatu ere egin nahi, beti zerbait galtzen ari garela, eta zertatik eta zenbat galtzen dugun ez dugula jakinen ere inoiz.

Eta maisuen esanak datozkit gogora. Konparazio batera, Jünger jaunak esaten zuen, bere boterea inozentzi osoz erabiltzeak ematen ziola gizonari graziarik ederrena. Montaignek ere, berdintsu: erromatarren haundit-

sunak, beren inperio noblearen erabateko inozentziari zor zaiola. Lutero edo Inazio gurea bezalako gizatasun tasadore extuak sortu ziren arte, jakina.

Bien bitartean nere bihotza, errugabeko haur bihurri hau, inozentzi pittin baten bila desesperatua dabilkit bazterrik bazter. Inguru guzia daukat inozentzi puntuz betea, baina nere beginini lausook modernismo tasadorez zikindu zirenetik, bihotzak apenas sumatzen duen deus. Horregatik seguraski, nere bakardaderako eta larrerako joera: begininiak inozentziaren iturrian garbitzeagatik edo...

Fontibrera noa, eta ez oroitzen nere bihotzak non gelditu nahi duen! Ez parrik egin, ez. Ikaragarria baita, pentsatzen jarritz gero. Konparazio batera, gure aurrekoak aski zuten iragana inozentzi pittin batekin oroitzearekin. Oraingo tasadoreok, ordea, inozentziari xirikurik tiki-kiena utzi gabe, etorkizuna ere erabat oroitua utzi nahi digute. Etsenpluak?: eguneroko foto bat hautxoari, astero familiko bideo bat, urteroko zoriona fototan, etc...

Inozentzi pittin batekin bizi beharrean, beste inola ezin baita bizi, esaten dena bizi, bihar edo etzi zeinen guapo azalduko diren aurrakustearrekin aski dute, bere gorputzaren edertasuna deskubritu eta tasatzen hasi den neskaokorra bezala, alde txar eta itsusi guziak desterratu, eta alde zurreratik beren perfekzio publikoa oroituz.

Baina bertuterik humanoenak, oroimena hozkaka urratuz, zentzuak hankapean bihurtuz, sortzen dira. Ez du polita behar, jakina, oroimenik batere gabeko jendeak, baina, oraingok bezala, etorkizuna oroitze hutsetik bizi dena ere, gure amak esanen luken bezala.

La Reinosan esnatu naiz. Zergatik egiten digu goizero parra eguzkiak? Ez dirudi burlaz ari denik. Inozentzi pittinen bat erakutsi nahi ote digu akaso?... Heldu naiz Yon. Espetu Lurdes...

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Orreagatik Logroñora

**E**Z GAITEZEN TRONPA, IRUZUR AFERETAN EZ DIRA EZBERDINAK, IPAR-Hegoan, Eki-Mendebalean bergauza, honetan, Orreagan gisan, Roldanen lotsagabetasuna haien hondamendiaren erantzule, inoiz espetxea bisitatuz gero, Asparros bezalaxe, Logroño izanen dute muga. Ondorengo jakina da, haien garaian zabalduko «sozialisten ondarea» dute berme.



# Silvia Pagola

◉ Pirinioko Partzuergoko kudeatzailea

## «Oso garrantzitsua da jendeak partzuergoa onartzea»

**Silvia Pagolak duela gutxi hartu zuen Piriniotako Partzuergoa kudeatzeko lana. Berak zonaldeak orain duen azpiegitura mantendu eta finkatu nahi du baina turismoa masifikatu gabe. Bestalde, partzuegoa sendotu beharra dagoela uste du.**

**E**LKARRIZKETAK GUSTOKO EZ dituen arren, kafe baten arri-moan gustora hitz egin du egokitu zaion lan berriaz. Pirinioetako herriak sustatzea erronka handia deritzo.

■ **Duela gutxi hartu duzu Pirinioko Partzuergoko kudeatzailearen kargua. Zein helburu dituzu?**

Orain arte dagoen azpiegitura mantendu, finkatu, eta berria sortu nahi dugu. Baina gurea ez da turismo masifikatua baizik eta beste zerbaitek: nekazal etxeen arloan asko aurreratu da eta orain mendietako hotelak bultzatu beharko lirarteke. Edozein aktibitate egiterakoan dauden hotelak eta etxeak azkar betetzen dituzulako. Badugu azpiegitura oso garrantzitsua baina zerbaitek gehiago beharko litzateke. Oso garrantzitsua da jendeak partzuergoa onartzea, oraindik asentatzen ari baitira Nafarroan.

■ **Uda ona izan da?**

Ez dut daturik hemendik bi hilabetera aterako direlako, baina sumatu dudanaren arabera, baietz esanen nuke. Beti kexatu direnak ere oso pozik daude. Gainera, betiko turistez gain beste batzuk hasi dira etortzen: belgiarrak, holandarrak...

■ **Turismoa diru sarrera iturri eta zonaldeko dinamizatzaile dela dio Iruñeko Gobernuak. Zenbatetaraino da egia hori?**

Zonaldeak beharrezkoa du turismoa ez dutelako industria garrantzitsurik. Hein batean ona da hori, industria balute ez luketeelako duten erakargarritasun naturala izanen. Dauden abeltzaintza eta nekazaritza esplotakuntzak ez dira oso garrantzitsuak eta turismoa da diru sarrera garrantzitsue-

na. Erronkarin adibidez, Iruñearrekin batera da turismo gehien erakartzen duen zonaldea da. Udan ez ezik, elurragatik neguan era baibaititu bisitariak.

■ **Ana Lizarraga, Nafarroako Turismo zuzendariakdioenez, Nafarroan BPGren %4 da turismoarekin lortzen den etekin sarrera. Beste lurralde batzuekin konparatuz ez da oso adierazgarria?**

Beste lurralde batzuk abantail handia kentzen digute irudian zein produktuan, Asturias, Gali-

zia, kasu. Dena den, gure helburua ez da besteekin lehiatzea ez dugulako hainbeste turista hartzeko edukiera. Turismoaren gurdira igotzen ari gara eta erreparatu behar dugun atala da, batez ere gero Nafarroako aurrekontu orokorretan ez delako kasik islatzen. Hori da guztion keja, herrialdearen irudia ez ezik, atzetik zifra asko

daudelako apostua handiagoa beharko luke izan.

■ **Gobernuaz gain, beti aipatu izan da udalek eta lurralde entitateek ere inplikatu beharko luketela. Lortzen da?**

Piriniotako partzuergoak 41 udal hartzen ditu: Donejakue bideko herriak; Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko bailarak; eta Agoitz eta Irunberri. Partzuergoak Nafarroako zati handiena hartzen du baina 13.000 biztanle inguru ditu, horrek esan nahi du lurralde handia hartu arren, oso indar gutxi dugula. Balio du udalen arteko harremanak areagotzeko. Gainera partzuegoa ona da entitate pribatuak ere hitza badute. Lau urte lanean bagabiltza ere, herritarrek oraindik ez gaituzte gertu ikusten. Hemen %90 da partzuegoko bazkide, horrek esan nahi du turis-



● MIKEL UHARTE

soslaia

moarekiko kontzientzia handiagoa dagoela.

■ **Ana Lizarragak esan izan du ere lehenasuna duela estrategiak garatzea turista zorrotza erakartzeko. Horrelakoa da hona hurbiltzen dena?**

Bai. Kalitateko turismoa eskaintzea delako helburua. Horrek ez du esan nahi eskaintzen duzunak bost izar izan behar dituenik. Dituzun baliabideak baliatuz, zerbitzu ona eskaini behar da.

■ **Datu ekonomikoak begiratu dirudi Nafarroa ongi doala. Datoren urtean Europako Bata-suneko fondo estrukturalen banaketa aldatu egingen da eta badirudi Nafarroako mendialdea orain arte zegoen 5b zonaldeetik kanpo geratuko dela. Zer ondorio ekarriko dizkizue horrek?**

Partzuergoak Nafarroako Gobernutik dirulaguntza garrantzitsua jasotzen dute baina gero eta gehiago autofinantziazioan pentsatu behar dugu. Europako fondoena arazoza izanen da. Nafarroako Erriberak eta erdialdeak badituzte beste baliabide batzuk. Hemen aldiz, oso garrantzitsua da batez ere Galurretik egingen den indarra neka-

Silvia Pagola Opuseko Unibertsitatean Zuzenbidea ikasi bazuen ere, garapen agente bezala hasi zen lanean Montejurra Mankomunitatean. Bertan aritu zenean bultzatu behar izan zituen proiektu asko turistikoak zirenez, gerotzik turismoa eta tokian tokiko baliabideak sustatzea da bera lana.

Hemezortzi urte bete zituen arte Lizarran bizi izan zen baina egun Iruñean bizi da. Kasik egunero egiten du Ariberako joan etorria, han baitu beherrerako bulegoa. Hilabete eta erdi darama lan berrian eta zonaldea turistikoki oso garrantzitsuagoa irudituz zitzaiolako aukeratu zuen. Joan-etorriko bidaietan denbora asko ematen duen arren, ez da damutzen hartutako erabakiaz.

Bisitariarentzako hoberena eskaintzen saitzen den moduan, berak ere asteburuak aprobetxatzen ditu Nafarroa eta Pirinioak ezagutzeko. Familian lasai egotea du gustoko, igandeko otordu onak eta paseo lasaiak ditu, batipat. Gainera, urte eta erdiko alaba edukita, gehiagi ere ezin duela mugitu aitortu du.

zal guneetarako Europako laguntzak lortzeko. Oso zaila izanen da zerbaite lortzea, ja balezatua baitago 5b helburua desagertuko dela. Hemengo Gobernuak ez du indarririk egiten Madrilen eta gogorra izanen da guretzako.

■ **Behe Nafarroarekin eta Zuberoarekin egin duzue lanik aurtan. Nolakoak dira harremanak?**

Aurtan egin dugu proiektu bat eta oso harrera ona izan du. Orhi-

pean liburuska euskara, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratu dugu eta eskari ikaragarria izan du. Hizkuntza ezberdinetan argitalpenak falta dira eta horiek errepidez egin daitezkeen bideak direnez arrakasta izan du. Zuberoarekin izan den harremana oso ona izan da. Hala ere gutxi egiten dugu lan elkarrekin, gehiago bultzatu beharko litzateke gure artekoa.

→ Irene Arrizurieta



## BEKARIO!

patxi@earthling.net

**MAIKEL**  
eta Primitibo

**X**

**FILES!**

Egia  
Hor Nonbait Dago  
(omen)



### Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

## Legeak Urralburu urkabera

**B**arka iezadala Pedro Carlos Mendi haur gazteak; hogeit eta bi urtekoa, «hirurgarrena» bete gabe Iruñera preso daramatena. Barka iezadala bere gainean egindako koplak Gabrielen lepotik erabiltzeagatik. Nik dakit zer egin zuten «Ezkarozeko hirur mutil gaztek», baina «Iruñeko gartzela, Nafarroan den handiena, ongi gozatu zuten». Diputazioko presidente izandako Urralburu ere gero eta hurbilago dago espetxetik. Hala ere, oraindik ezin jakin Iruñekoa «gozatu» ote duen edo, bertzenaz, ipar haizearen ufa-dak Artederretakoa sumatuko ote dituen, aferak luze joko baitu. Dena dela, ederki harrapatu dituzte. Epaitutako guztiak azpiko negozio horietan ibili dira, baina argi dago, aunitzez ere jende gehiagok muturra sartu duela: enpresariak, bai behintzat, baita politikariak ere. Eta hara, orain badirudi nafar sozialistek berek azaleratu zutela Roldan auziaren nafar adarra, haiek izan direla epaileari lana erraztu diotenak eta hasieratik neurriak hartu zituztenak. Bai to! Urralburu eta Aragon buru belarri defenditu zituzten eta alderditik kanporatu zituztenerako, epaileka espetxeratzeko agindua emana zuen. Hala eta guztiz ere, lasai, afe-raxka ttipi isolatua izan da. Azken buruan, Urralburu, nor ote da? Nor ote Aragon? Nor ote Roldan? Eta Otano? Eta Malon? Eta bertzeak? Non ote dabiltza horiekin eskuz esku ibilitakoak? Kukutu dira, kukutu direnez eta Ezkarozeko koplek dioten gisan «...nagusi makurrak irakitzen du gezurrez». Ea, bada, horiek oro ere azaleratzen diren. Bitartean, koplekako ezkaroztar haiek gartzelan «seina hilabete pasatu eta berrogeina otxin pagatu» zuten. Oraingo honetan, ordea, ezkaroztarrak gehiago itzuli beharko du (edo itzuli beharko luke, behintzat).

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

► **Lizarra:** Antzinako Musika As-tearen barnean, Al Ayre Español taldeak joko du gaur, Vaghi Concentik bihar eta Il Giardino Armonicok etzi. Kontzertuak San Migelgo elizan izanen dira 20:00etan.

### ANTZERKIA

► **Bera:** Ttanta antzerki taldeak *Dakota* lan arrakastatsua eskeiniko du bihar, Berako kultur etxean, 22etatik aitzinera.

### HITZALDIAK

► **Lizarra:** Seigarren Sefardi As-tea ospatuko dute Zangozan heldu den astean, 'Nafarroako sefardiak, joan etorria' izenburupean. Hori dela eta lau hitzaldi antolatu dituzte Gustavo de Maeztu museoan. Irailak 15ean Bernard Rother ariko da, 16an Uriel Macias, 17an Jose Luis Lacave eta 18an Henry Kamen. Hitzaldi guztiak arratseko zortietan hasiko dira.

### IKASTAROAK

► **Barañain:** Barañaingo Emakumeen Taldeak 18 orduko ikastaroa antolatu du 'Emakumea eta osasuna' izenburupean. Izena Kultur Etxeko atezaindegian eman beharko da gaurko 13.30 baino lehen.

► **Atarrabia:** Kultura eta Gazteria Zerbitzuak haurrendako tailerrak antolatu ditu euskaraz zein gaztelaniaz. Izena emateko epea irailaren 14an irekiko dute eta 25ean itxi.

### ERAKUSKETAK

► **Lekunberri:** Elena Asinsen lanak ikusgai dira irailaren 13ra arte Mintxasenea Kultur Etxean.

### BESTELAKOAK

► **Barañain:** Ortzadar euskal folklore taldeak *Soinudantza* ikuskizuna eskainiko du gaur 22etatik aurrera Barañaingo Udal Plazan.

► **Iruñea:** Arrano Elkarteak Xake Txapelketa antolatu dute irailaren 14tik 18rako.

► **Iruñea:** Julian Gaiarre Kantu txapelketa ospatuko dute irailaren 13tik 20ra Gaiarre Antzokian.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Gutxirekin asetzen naiz. Egunsentian auzoan barna ibili. Pipatzeari utzi. Mahatsa erosi. Eta goiz oheratu, ezagutu berriko kamaleoi batekin.

**IVAN TUBAU**  
SCOTS WHISKY